

# KOSTUEN EGITURA

Kostuak bultzatutako eredu-mota da, eta kostuak minimizatzen zuzenduta dago proiektua, hau da, ahalik eta kostu txikien izaten saiatuko gara. Kostuen aldetik, kostu finkoak eta kostu aldagarriak daude. Kasu honetan, kostu finkoak denda jarri ahal izateko baimena izango litzateke; kostu finkoa da ordaindu beharreko tasa normalean ez delako aldatzen edo oso gutxi. Bestetik, kostu aldagarriak erosi beharreko material guztia izango litzateke; kostu aldagarriak dira beste enpresa batek produzituak direlako, beraz prezioa aldatuko da merkatuaren arabera eta saldutako bolumenaren arabera.